

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5600

*1776/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako hautaketa-prozesu hauetako oinarri orokorrak: 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetakoak eta egonkortzeko prozesukoak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategoría bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriak,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean jasotakoak, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez onartzea bloke bakoitzean (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) eskainitako destinoen zerrenda.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea (baremo bera da oposizio-lehiaketaren blokerako eta lehiaketaren blokerako).

Bosgarrena.– Lehiaketa-oposizioko blokeko gai-zerrenda onartzea, Ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik 2023ko martxoaren 20ko 14:00ak artekoa izango da, hala ezarri baita oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 9.3 oinarrian.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

## I. ERANSKINA

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESTATUTUPEKO LOTURA FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK, FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIARAKO (OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

## 1.– Deialdiaren xede diren destinoak

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak; II. eranskinean jasota daudenak, alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

## 2.– Izangaiek bete beharreko eskakizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentzia edo titulu baliokidea izatea eta Pediatria espezialitateko titulua izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edonola ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak betetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen lanbide-taldearen arabera:

A1 taldea (A talde zaharra): 25 euro.

## 3.– Prozesua nola garatuko den:

3.1.– Lehiaketa-oposizioko blokearen eta lehiaketako blokearen lehiaketa-fase bateratua:

3.1.1.– Eskakizunen eta merezimenduen egiaztapena. Dokumentazioa aurkeztea.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartuta dauden izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute –onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita– deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzen eta merezimenduen alegazioa egiteko, bai eta horien inguruko egiaztagiria aurkezteko ere, 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera baloratuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera (12.2 oinarria).

3.1.2.– Oinarri orokorretako 14.1.1 apartatuan (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.1 apartatuan (lehiaketako blokea) zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentziako tituluaren edo baliokidearen eta lortu nahi den lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen den Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko espezialitatearen tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Izangai bat aldi berean lehiaketa-oposizioko blokeko I. eranskinean eta lehiaketako blokeko I. eranskinean sartuta badago, dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera (14.1.2 oinarria).

3.2.– Lehiaketa-oposizioko blokeari dagokion oposizio-fasea:

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio proben edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai proba prestatzeari dagokionez, bai lehiaketa-fasean. Aholkulariek epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizun bera izango dute.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari kanpoko erakunde aholkularietara jotzea ere eskatu ahal izango dio, probak prestatzeko eta oposizio-fasean probekin zerikusia duten gai guztietarako.

Oposizio-fasean ariketa hauek egin beharko dira:

a) Lehenengo ariketa: Probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira:

1.– Gai-zerrenda komunari buruzko galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera-sortatik aterako dira.

2.– Gai-zerrenda orokorrari buruzko galdera horiek prestatzeko bibliografia ere eranskin berean emango da.

b) Bigarren ariketa: epaimahaiak proposatzen dituen ariketa praktikoak egin beharko dira. Horretarako, aukerako erantzunak dituen galdera sorta bat erantzun beharko da.

Ariketak destinoen funtzio espezifikoekin lotuta egongo dira eta haien helburua izango da izangaiek destino horietan aritzeko dituzten gaitasunak, abileziak, ezagutzak eta ahalmen profesionala baloratzea.

Oposizio-fasean bi ariketa egingo dira proba berean; ariketa teoriko bat eta praktiko bat, biak eskainitako destino ezberdinetako funtzio espezifikoekin lotuta. Probaren azken emaitza bi ariketen batezbesteko haztatua izango da, % 65 proba teorikoarena eta % 35 ariketa praktikoarena. Horretarako, formula honen arabera lortuko da batezbesteko haztatua:

$$MP = \frac{(N1 * 65) + (N2 * 35)}{65 + 35}$$

MP: batezbesteko haztatua.  
N1: proba teorikoaren nota (gehienez, 100 puntu).  
N2: proba praktikoaren nota (gehienez, 100 puntu).

Oposizio-fasea gaindituztat emateko, bi ariketen batezbesteko haztatuak 100 puntutik 50 puntukoa izan beharko du gutxienez.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio gai-zerrenda komuneko galderak hautatzea eta gai-zerrenda orokorreko galderak hautatzeari buruzko erabakiak hartzea. Epaimahaiak galdera horiekin guztiekin osatuko du, hain zuzen ere, ariketa teorikoa. Era berean, epaimahai kalifikatzaileari dagokio ariketa praktikoa egitea eta kalifikatzea.

### 3.3.– Lanpostuez jabetzea.

Oinarri orokorretako 17. oinarrian aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honetako destinoren bat jabetzan hartzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte lanpostuaz jabetzeko ekitaldian:

- Elkargokide-ziurtagiria.

## II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: MEDIKUA, LANPOSTU FUNTZIONALA:  
FAK. ESP. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

1.– Lehiaketa-oposizio blokea:

a) Txanda askeko deialdia: 31 destino.

Sarbide orokorra: 29.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 2.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 2.

2.– Lehiaketako blokea:

Sarbide orokorra: 15 destino.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

Oinarri orokorretako 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak, lehiaketa-oposizioko blokekoak zein lehiaketako blokekoak, zehaztuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko uneko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren xede diren kategoriak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-2019ko EPEko behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren. Bi horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira.

## III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK  
LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM  
LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU  
SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

## 1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Dagokion espezialitateko etengabeko arretako behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Zerga, administrazio eta gizarte neurriei eta ordena sozialari buruzko abenduaren 23ko 62/2003 Legean xedatutakoaren arabera eta deialdiak ezarri bezala, titulua irailaren 24ko 1497/1999 Errege Dekretuaren babesean eskuratu dutenen espezialista gisako antzintasuna baloratzeko, aintzat hartuko da interesdunak espezialitatearen berezko eta berariazko eremuan egindako lan profesional eraginkor osoa. Nolanahi ere, jardute horretatik –eta hasierako alditik– kendu egingo da Espainian espezialitate horretarako ezarritako prestakuntza-aldiaren % 170. Kenketa hori ez zaie aplikatuko espezialista-titulua 1497/1999 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera lortu dutenei.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan kategoria eta espezialitate berean edo arlo medikoko kudeaketako lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,30 puntu.

2.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko edozein estatu kideren sare publikoko zerbitzu sanitarioetan kategoria eta espezialitate berean edo arlo medikoko kudeaketa-lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

3.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan LMAko pediatra gisa espezialitate berean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,18 puntu.

4.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan LMAko pediatra gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,045 puntu.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan Kupoko eta Zonako Medikua gisa espezialitate berean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,12 puntu.

6.– Gizarte Segurantzako osasun-zerbitzuetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan Kupoko edo Zonako Medikua gisa espezialitate berean emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,03 puntu.

7.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan eta autonomia-erkidegoetako zerbitzu sanitarioetan mediku orokor edo beste espezialitateetako mediku edo ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,055 puntu.

8.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetakoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan mediku orokor edo beste espezialitate batzuetako mediku edo ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,0138 puntu.

9.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan kudeaketa-arloan eta zerbitzu orokorren arloan goi-mailako kudeaketa lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzten diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde z aurreko zerbitzuak:

- a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,03 puntu hilabete bakoitzeko.
- b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,045 puntu hilabete bakoitzeko.
- c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,06 puntu hilabete bakoitzeko.
- d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,075 puntu hilabete bakoitzeko.
- e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.
- f) Lortu nahi den lanpostu berean emandako zerbitzuak:

f.1) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

f.2) Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

A) Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduaurreko prestakuntza:

Espediente akademikoaren balorazioa honela egingo da:

$$\frac{(\text{Bikain kopurua} \times 6) + (\text{Ohorezko matrikulen kopurua} \times 9)}{2}$$

Ikasgaiak, guztira

Ez dira ebaluatuko, eta, horregatik, ez dira zatitzailean sartuko, ez ofizialki baliozkotu diren ikasgaiak, ez erlijjioko, prestakuntza politikoko, gorputz-hezkuntzako eta hizkuntzetako ikasgaien

kalifikazioak, ez Medikuntzako Lizentziako ikasketen edo baliokideren berezko edukiarekin funtsezko loturarik ez duten beste ikasgai batzuen kalifikazioak.

b) Graduondoko prestakuntza:

- Cum laude doktore-titulua: 10 puntu.
- Doktore-titulua: 9 puntu.
- Graduondoko masterra: 6 puntu.
- Unibertsitateko Aditu edo Espezialista titulua: 5 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 4 puntu.
- Lizentzia-gradua (bikain edo ohorezko matrikula): 3 puntu.
- Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,25 puntu.
- Lotutako bestelako unibertsitate-tituluak: 2,5 puntu.

Cum laude doktore gisa puntuazioa emanez gero, ez da punturik emango doktore gisa. Cum laude doktorea edo Ikertzeko nahikotasuna edo Ikasketa aurreratuen diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroek ez dute punturik emango.

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Kategorian sartzeko eskatutakoak ez diren legez aitortutako espezialitate bateko edo batzuetako tituluak dituzten izangaiak, betiere titulu horiek ofizialki onartutako fakultatiboen prestakuntza espezializatuko programa egoiliar gisa bete ondoren lortu badituzte: 2 puntu.

2.– Kategorian sartzeko eskatutakoa ez den espezialista-tituluak dituzten izangaiak (BAME bidezkoak ez direnak): 1 puntu.

d) Hizkuntzak (gehienez, 3 puntu):

- Ingelesa: gehienez, 1,5 puntu.
- Frantsesa: gehienez, 1,5 puntu.
- Alemana: gehienez, 1,5 puntu.

e) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

B) Apartatu honetan, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urteetan amaitu den prestakuntza baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

a) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 ordura arte: 0,25 puntu.
- 10 eta 19 ordu bitartean: 0,75 puntu.
- 20 eta 29 ordu bitartean: 1,25 puntu.
- 30 eta 49 ordu bitartean: 2 puntu.

- 50 eta 99 ordu bitartean: 3 puntu.
- 100 eta 249 ordu bitartean: 4 puntu.
- 250 eta 599 ordu bitartean: 5 puntu.
- 600 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

- Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.
- Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztagirien kasuan, edo kredituak izan bai, baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,25 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak baloratuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

b) Irakaskuntza-jarduerak:

- Fakultateko/Unibertsitate Eskolako katedraduna (urteko): 1 puntu.
- Unibertsitateko fakultateko/eskolako irakasle titularra edo elkartua (urteko): 0,50 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,750 puntu.
- Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu.

c) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearren, komunikazioak aurkeztearren, hitzaldiak ematearren edo mahai-inguruetan parte hartzearen:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 2 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.

- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

3) Euskara:

- 2. HE: 18 puntu.
- 1. HE: 9 puntu.

## IV. ERANSKINA

## OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM

## I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

## 1 – Jaio aurreko pediatria:

1.1.– Zitogenetikaren eta genetika molekularren oinarrizko kontzeptuak. Kromosomopatia nagusiak sailkatzea eta aztertzea.

1.2.– Herentziaren patroiak. Aholku genetikoa.

1.3.– Jaio aurreko diagnostikoa eta patologia. Teratologia. Agente infekzioso, fisiko, kimiko eta metabolikoen eragindako enbriofetopatiak.

## 2.– Neonatologia:

2.1.– Jaioberri normala. Ezaugarri anatomikoak eta fisiologikoak. Jaioberrien balorazioa. Egokitzapen-aldia. Jaioberriaren zainketa orokorrak eta elikadura.

2.2.– Fetuaren hazkundearen alterazioak. Haurdunaldi-adina baloratzea. Pisu gutxiko jaioberria: sailkapena.

2.3.– Garai aurreko jaioberria. Ezaugarri anatomikoak eta fisiologikoak. Arazo nagusien azterketa. Garai aurreko jaioberriari laguntzea.

2.4.– Fetuaren eta jaioberriaren sufrimendua. Kontzeptua. Balorazio diagnostikoa eta tratamendua. Jaioberrien hipoxia. Jaioberria bizkortzea.

2.5.– Jaioberriaren arnasteko zailtasuna eta patologia.

2.6.– Traumatismo obstetrikokoak.

2.7.– Jaioberrien patologia infekziosoa. Sepsia eta meningitisa.

2.8.– Jaioberriaren alterazio hematologikoak. Anemia eta polizitemia. Gaixotasun hemorragikoa.

2.9.– Jaioberrien ikteriziak. Bilirrubinaren metabolismoa. Jaioberrien ikteriziak sailkatzea. Jaioberriaren ikterizia fisiologikoa.

2.10.– Jaioberriaren nahasmendu metaboliko akuatuak. Ama diabetikoaren seme-alaba. Hipogluzemia.

2.11.– Gaixotasun hereditarioen jaioberrien screening-a.

## 3.– Metabolismoa eta nutrizioa:

3.1.– Haurren digestioaren fisiologia eta heste-absortzioa. Nutrizio-eskaerak.

3.2.– Edoskitze naturala.

3.3.– Edoskitze artifiziala. Elikadura osagarria. Haur osasuntsuaren elikadura.

3.4.– Metabolismo hidrosalinoa. Deshidratazio akutua: fisiopatologia, klinika eta tratamendua. Azido-base oreka.

3.5.– Nutrizioa eta horren alterazioak. Nutrizio-egoeraren balorazioa. Malnutrizio kaloriko-proteikoa: fisiopatologia, klinika eta tratamendua.

3.6.– Obesitatea: etiopatogenia, klinika eta tratamendua.

3.7.– Metabolismoaren berezko akatsak. Koadro nagusiak. Mukopolisakaridosia.

3.8.– Errakitismoak. D hiperbitaminosia. Kaltzio eta fosforo metabolismoaren beste alterazio batzuk.

4.– Hazkuntza eta garapena:

4.1.– Hazkuntzaren eta garapenaren fisiologia eta ezaugarriak haurtzaroko aldietan. Hazkuntza aztertzea eta baloratzea.

4.2.– Hazkundearen patologia. Hazkundearen aldaera normalak. Neurri txikiko haurraren aurrean jarrera diagnostikoa eta terapeutikoa. Hipohazkuntza.

4.3.– Pubertaroa. Pubertaro maskulinoaren eta femeninoaren fisiologia. Pubertaroko anomaliak. Kriptorkidia duen haurraren maneia.

5.– Endokrinologia:

5.1.– Hipofisiaren patologia. Koadro nagusiak. Diabetes zaporegabea. Enanismo hipofisarioa.

5.2.– Tiroideko eta paratiroideetako patologia. Goloa. Hipotiroidismoa. Hipertiroidismoa.

5.3.– Giltzurrun gaineko guruineko patologia. Giltzurrun gaineko guruineko sortzetiko hiperplasia.

5.4.– Egoera intersexualak. Sexua zehazteko eta bereizteko mekanismoetako anomaliak. Pseudohermafroditismoa.

5.5.– Diabetes mellitusa. Etiopatogenia. Fisiopatologia. Azterketa klinika eta diagnostikoa. Epe laburreko eta luzeko konplikazioak. Haur diabetikoaren maneia.

6.– Immunologia eta alergia:

6.1.– Immunitatearen fisiologia eta garapena. Immunitate-egoeraren balorazioa.

6.2.– Lehen mailako eta bigarren mailako immunoeskasiak. Sailkapena. Koadro nagusiak aztertzea.

6.3.– Hiesa haurtzaroan. Epidemiologia. Etiopatogenia, klinika, diagnostikoa, profilaxia eta tratamendua.

6.4.– Alergia. Anafilaxia. Urtikaria. Alergiaren diagnostikoa eta oinarri terapeutikoak.

6.5.– Elikadura- eta digestio-alergia. Medikamentuekiko alergia.

6.6.– Gaixotasun autoimmuneak eta erreumatikoak. Gazteen artritis idiopatikoa. Lupus eritematoso sistemikoa. Baskulitisa.

7.– Patologia infekziosoak:

7.1.– Birusek eragindako infekzioak. Barizela. Mononukleosi infekziosoak. Parotiditisa. Zitomegalobirusa. Herpesa. Gaixotasun exantematikoen diagnostiko diferentziala.

7.2.– Bakterio-infekzioak. Estafilokokoak. Estreptokokoa. Pneumokokoa. C meningokokoa. Bordetella. Bakterio gram-negatiboak.

7.3.– Beste infekzio batzuk. Tuberkulosia. Tetanosa. Botulismoa.

7.4.– Onddoek eta protozoek eragindako infekzioak. Kandidiasia Aspergilosia. Paludismoa.

7.5.– Patologia infekziosoaren orientazio diagnostikoa eta terapeutikoa: shock septikoa, meningitisa, entzefalitisa, amigdalitisa, adenitisa, pneumonia, hepatitisa, artritisa, osteomielitisa.

7.6.– Immunizazioak. Indarreko txerto-egutegia.

8.– Digestio-aparatua:

8.1.– Gorakoak. Semiologia orokorra. Digestio-malformazioak. Errefluxu gastroesofagikoa. Gastritisa. Piloroko estenosi hipertrofikoa. Gorako ziklikoak.

8.2.– Beherako akutua eta kronikoa. Gastroenteritisa. Hesteetako gaixotasun inflamatorio kronikoak. Hesteetako malabsortzioaren sindromea.

8.3.– Sabelaldeko mina. Apendizitis akutua. Digestio-buxadurak. Heste-inbaginazioa.

8.4.– Idorreria. Enkopresia. Uzki-ondesteko patologia. Sortzetiko megakolona.

8.5.– Heste-parasitosisia.

8.6.– Gibeledko eta behazun-bideetako patologia. Gibeledko hutsegite akutua. Porta-hipertentsioa. Gibeledko zirrosia. Reye-ren sindromea.

8.7.– Gaixotasun zeliakoa.

9.– Arnas aparatua:

9.1.– Goiko arnasbideetako patologia. Errinitisa. Adenoiditisa. Sinusitisa. Faringoamigdalitisa. Otitisa. Faringitisa. Laringitisa.

9.2.– Beheko arnasbideetako patologia. Bronkiolitisa: etiopatogenia, klinika eta tratamendua. Gorputz arrotzak xurgatzea. Bronkioetako eta biriketako malformazioak.

9.3.– Pneumoniak eta bronkopneumopatiak.

9.4.– Bronkioetako asma.

9.5.– Fibrosi kistikoa.

9.6.– Pleurako eta mediastinoko patologia.

10.– Aparatu kardiobaskularra:

10.1.– Sortzetiko kardiopatiak. Sortzetiko kardiopatiaren ikuspegi orokorra. Motak. Koadro klinikoak. Diagnostikoaren eta tratamenduaren printzipio orokorrak.

10.2.– Bihotz-gutxiegitasuna.

10.3.– Bihotz-biriketako bizkorketa.

10.4.– Biriketako hipertentsio arteriala.

10.5.– Arritmiak.

- 10.6.– Miokardiopatiak. Miokarditisa. Perikarditisa.
- 10.7.– Shock hipobolemikoa eta kardiogenikoa.
- 11.– Nefrologia:
  - 11.1.– Glomerulonefritisa.
  - 11.2.– Sindrome nefrotikoa.
  - 11.3.– Hematuria eta proteinuriaren ikuspegi diagnostikoa.
  - 11.4.– Gernu-infekzioa. Maskuri-ureterreko errefluxua.
  - 11.5.– Tubulupatiak.
  - 11.6.– Sindrome hemolitiko uremikoa.
  - 11.7.– Giltzurrun-gutxiegitasuna.
  - 11.8.– Giltzurruneko malformazio garrantzitsuenak.
- 12.– Onkologia eta hematologia:
  - 12.1.– Anemiak hartzaroan. Saillkapen orokorra. Koadro nagusiak aztertzea. Anemia nutrizionalak eta hemolitikoak.
  - 12.2.– Anemia aplasikoa.
  - 12.3.– Neutropeniak. Trobopeniak. Koagulopatiak. Purpuren diagnostiko diferentziala.
  - 12.4.– Leuzemia akutuak hartzaroan.
  - 12.5.– Tumore solidoak hartzaroan. Garuneko tumoreak. Linfomak. Wilms-en tumorea. Neuroblastoma. Hezurretako eta atal bigunetako tumoreak.
- 13.– Nerbio-sistema eta lokomozio-sistema:
  - 13.1.– Garapenaren nahasmenduak. Adimen-atzeratasuna. Garun-paralisia. Prebentziorako oinarriak.
  - 13.2.– Konbultsioak. Adinaren araberako saillkapen etiologikoa. Sukar-konbultsioa. Epilepsia.
  - 13.3.– Garezur barneko hipertentsioa. Zefaleak.
  - 13.4.– Patologia neuromuskularra. Hipotonia eta miopatia. Werdnig-Hoffman-en gaixotasuna. Duchenne-ren muskulu-distrofia.
  - 13.5.– Ataxia.
  - 13.6.– Traumatismo kraneoentzefalikoa.
  - 13.7.– Arantza bifidoa.
  - 13.8.– Arreta-faltaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua.
  - 13.9.– Garapenaren nahasmendu orokorrak eta haurren psikosia.

#### 14.– Pediatria soziala:

14.1.– Haurren istripuak eta intoxikazioak. Bularreko umearen bat-bateko heriotza.

14.2.– Tratu txarrak jasan dituen haurraren sindromea. Epidemiologia, forma klinikoak, diagnostikoa eta jokabide mediko-legala.

14.3.– Portaeraren nahasmenduak haurtzaroan eta nerabezaroan. Anorexia nerbiosoa eta bulimia.

14.4.– Arazo psikosozialak.

#### 15.– Haurren osasuna eta osasun publikoa:

15.1.– Osasuna eta gaixotasuna. Osasun Publikoaren kontzeptua. Heziketa sanitarioa.

15.2.– Haurra bizi den komunitatearen osasun-maila aztertzeko metodika. Pediatria soziala.

15.3.– Haurren osasunean eragina duten faktore ekologikoak. Saneamendua eta ingurumen-higienea.

15.4.– Prebentziozko pediatria: orokortasunak. Osasun-azterketa sistematikoak.

15.5.– Psikologia soziala: Garapen emozionala haurtzaroko etapen arabera. Sexu-portaera eta haren gatazkak. Pediatra eta haurren osasun mentalean duen zeregina. Talde marjinatuak.

15.6.– Egoera pediatriko-sanitarioa eta garapen sozioekonomikoarekin eta kulturalarekin dituen harremanak ezagutzea.

15.7.– Haurrak babesteko nazioarteko erakundea. Arreta pediatrikoa eta bere mailak. Umearen eskubideak.

15.8.– Epidemiologia: Oinarrizko printzipioak. Metodo epidemiologikoak. Epidemiologia-programak.

15.9.– Bioestatistika: Metodo estatistikoa, esanahi estatistikoa, korrelazioa eta erregresioa. Datuak biltzea eta biltegitratzea. Laginketa. Osasun-estatistikak.

15.10.– Demografia: Informazio demografikoa. Indizeak eta tasak.

#### GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– Robert M. Kliegman, Joseph W. St Geme III, Nathan J. Blum, Samir S. Shah, Robert C. Tacker, Karen M. Wilson. Nelson Textbook of Pediatrics. 21st edition. Elsevier. 2019.

2.– Mark W. Kline, Susan M. Blaney, Angelo P. Giardino, Jordan S. Orange, Daniel J. Penny, Gordon E. Schutze, Lara S. Shekerdemian, Abraham M. Rudolph, Colin D. Rudolph. Rudolph's Pediatrics. 23rd edition. McGraw-Hill Education/Medical. 2018.

3.– Eric C Eichenwald, Ann R Star, Anne R Hansen, Camilia R Martin. Cloherty and Stark's Manual of Neonatal Care. 8th edition. Wolters Kluwer. 2017.

4.– Hernández Manuel Cruz, Serrano, M. M., Guerrero Serafín Málaga, López Luis Madero: (2021). Cruz Tratado de pediatría. Médica Panamericana.

5.– Javier Benito, Carles Luaces, Santiago Mintegui, Jordi Pou. Tratado de pediatría. 2. edizioa. Ergon argitaletxea. Madril. 2011. ISBN: 84-8473-893-0.

6.– American Academy of Pediatrics (AAP). Pediatric Clinical Practice Guidelines & Policies: A Compendium of Evidence-based Research for Pediatric Practice. 21st edition. American Academy of Pediatrics. 2021.

7.– Richard G Bachur, Kathy N Shaw, James Chamberlain, Jane Lavelle, Joshua Nagler, Joan Shook. Fleisher & Ludwig's Textbook of Pediatric Emergency Medicine. 8th edition. LWW Wolters Kluwer Health. 2020.

## II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

- 1.– Osasun-lanbideen araudia.
- 2.– Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitatea.
- 3.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutua.
- 4.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioa.
- 5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoa.
- 6.– Osakidetzako paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- 7.– Pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak informazio eta dokumentazio klinikoko gaitan.
- 8.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.
- 9.– Datu Pertsonalak Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzea.
- 10.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- 11.– Marko Estrategikoa.
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak.
- 13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan.
- 14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.
- 15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana.

## GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa.
- 2.– 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa.
- 3.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena.
- 4.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 5.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituena.
- 6.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.

7.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena.

8.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun-arloko aurretiazko borondateena.

9.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bigarren aldaketa barne.

11.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco\\_estrategico\\_2021\\_2024/eu\\_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf)

12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/osasun\\_plana\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf)

13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo\\_estrategia\\_seg\\_paciente/eu\\_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf)

14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).

[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc\\_sosa\\_soziosanitario\\_estrat/eu\\_def/adjuntos/estrategia\\_sociosanitaria\\_187x280\\_eu\\_web.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf)

15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana 2022-2028.

[https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_trbg\\_planes\\_programas/eu\\_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf)